

STEE-EILAS SINDIKATUAK EUSKO JAURLARITZAK ERLIJIOKO IRAKASLEEI EMANDAKO PRIBILEGIOZKO TRATUA SALATU NAHI DU

STEE-EILAS sindikatuak salatu nahi du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak irakaskuntza publikoan lanean diharduten erlijioiko irakasle ordezkoei eman nahi dien pribilegiozko tratua, gainerako irakasleekiko guztiz diskriminatzailea dena. Izan ere, erlijio zerrendetan ordezkapenak betetzen ari diren irakasle interinoei beste espezialitatetako zerrendetan sartzeko aukera eman zaie, onartu berri den araudi berriaren interpretazio maltzurra eginez. Larria da gainera, aurten lehenengo aldiz zabaldu zaien ate hau aurrerantzean ere zabalik geratuko delako.

Gogoratu behar da irakasle hauek tokian tokiko Gotzainak aukeratzen dituela (missio canonica delakoa emanez) Estatuak Eliza katolikoarekin sinatu zuen akordio justifikaezinaren baitan. Ondorioz, instituzio publikoetatik kanpo dagoen pertsona batek erabakitzen du zein den gai eta zein ez eskolak emateko, eta ez ohiko sarbide arbitrario eta ideologiko honen bidez, irakasle horiek lortzen dute lana ikastetxe publikoetan, besteentzako ezinezkoa dena, gainerako zerrendak itxita daudelako

Orain, lehenengo aldiz, Hezkuntza Sailak ireki dio kolektibo honi beste espezialitateko zerrendetan sartzeko aukera, erlijioa emateagatik lortu duten antzintasuna aintzat hartuz. Era honetan, klaseak eman ahal izango dituzte beste ikasgaietan, gainerako irakasleei lana kenduz.

STEE-EILAS sindikatuaren iritziz, Eusko Jaurlaritza berriaren erabaki hau guztiz onartezina da. Alde batetik, beste irakasleekiko diskriminatzailea da, sistema publikoan sartzeko egon behar den aukera berdintasuna hausten duelako; bestetik, ontzat ematen duelako erlijioiko irakasleak bertan sartzeko duten pribilegiozko tratua.

Errepikatu behar dugu behin eta berriro erlijioak ez duela eskolan lekurik izan behar, eskolak laikoa behar duelako, eta horrela berresten dute gurekin batera urtero irakaskuntza publikoan dauden eragile guztiok.

Gasteiz, 2013ko maiatzaren 10ean

STEE-EILAS

EL SINDICATO STEE-EILAS DENUNCIA EL TRATO DE PRIVILEGIO OTORGADO POR EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN AL PROFESORADO DE RELIGIÓN

El sindicato STEE-EILAS denuncia el trato de favor que la nueva Consejería de Educación del Gobierno Vasco ha otorgado al profesorado interino de las listas de religión que trabajan en la enseñanza pública, trato de privilegio absolutamente discriminatorio con el resto del profesorado que también realiza sustituciones. El Departamento de Educación, en una decisión absolutamente consciente, ha interpretado a su manera la nueva normativa que afecta al profesorado sustituto, y ha dado al colectivo de las listas de religión la posibilidad de acceder al resto de las listas de otras especialidades. Este hecho es más grave aún porque, es la primera vez que esto sucede y además se consolidará en el futuro.

Hay que recordar que estos docentes son elegidos por el Obispado de cada Territorio (concediéndoles la “missio canonica”) como consecuencia del injustificable acuerdo que el Estado español firmó con la Santa Sede. En consecuencia, una persona que está fuera del sistema público de enseñanza decide quién es apto o no para dar clases en el mismo, y con esta forma arbitraria, ideológica e irregular de acceso logran trabajo en los centros públicos, cuando al resto le es imposible porque el resto de listas de sustituciones permanece cerrado.

Ahora, además y por primera vez, el Departamento de Educación da la oportunidad a este profesorado eventual de religión de entrar en el resto de listas de otras especialidades, manteniéndoles la antigüedad conseguida como consecuencia de la impartición de religión. De esta forma, podrán dar clases de otras asignaturas, desplazando y quitando el trabajo, así, a un gran número de profesores y profesoras de esas otras listas

En opinión del sindicato STEE-EILAS, esta decisión del nuevo Gobierno es inaceptable. Por un lado, es discriminatorio con el resto del profesorado ya que rompe la igualdad de oportunidades en el acceso al sistema público de enseñanza y, por otro, da por bueno el trato de privilegio que el profesorado de religión ha tenido para acceder al mismo.

Tenemos que repetir una vez más, que la religión no tiene lugar en la enseñanza pública, que la escuela debe de ser laica y que así lo exigen junto con nuestro sindicato anualmente todos los agentes sociales de la enseñanza pública

Gasteiz, 10 de mayo de 2013

STEE-EILAS